



IV.A ERANSKINA - GENERO-IKUSPEGIA ETA POBREZIA ETA ZAURGARRITASUN ENERGETIKOAREN IKUSPEGIA TXERTATZEA DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUKETETAN:

Dirulaguntza arautzen duten oinarrietako 7. oinarrian xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak alderatu egingo dira, balorazio-irizpideen arabera lehentasunak ezartzeko. Irizpide horien artean dago dirulaguntzaren xede den jardueran genero-ikuspegia txertatzea eta baita, kasuren batean, pobrezia eta zaurgarritasun energetikoaren ikuspegia txertatzea ere.

Kontuan hartzeko, erakunde eskatzaileek honako informazio hau eman beharko dute

Dirulaguntzaren betebeharrei buruzkoa (4. oinarri arautzailea).

X batez markatu beharko dira dagokinak:

<input type="checkbox"/>	Erakunde edo pertsona eskatzaileak KONPROMISOA HARTZEN DU dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihesteko, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia sustatzeko
<input type="checkbox"/>	50 langile baino gehiago dituzten enpresa eskatzaileek dirulaguntza eskaerarekin batera Berdintasun Plana aurkeztu beharko dute, baita erantzukizunpeko adierazpena sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko ezarritako neurriak ere.

Balorazio-irizpideei buruzkoa (7. oinarri arautzailea).

Genero-ikuspegia txertatzeko kontuan hartuko diren aukerak **X batez markatu** beharko dira:

A PROGRAMA

(herritarren energia-komunitateak), eratzeko eta kudeatzeko jarduerak

<input type="checkbox"/>	Proiektuaren eragin eremuko pobrezia edo zaurgarritasun energetikoari lotutako irizpide espezifikoak sartuko dira (10 puntu)
<input type="checkbox"/>	Proiektuaren eragin eremuko pobrezia edo zaurgarritasun energetikoari lotutako irizpide espezifikoak sartzeaz gain, emakumeen arteko pobrezia energetikoaren eragin handiagoaren aurka borrokatzeko neurri espezifikoak sartuko dira (5 puntu)

Jarraian, proiektuaren eragin eremuko **pobrezia edo zaurgarritasun energetikoari lotutako irizpide espezifikoak nola txertatuko diren** deskribatu beharko da, eta, hala badagokio, baita



emakumeen arteko pobrezia energetikoaren eragin handiagoaren aurka borrokatzeko neurri espezifikoak nola txertatuko diren ere:

A PROGRAMA

(herritarren energia-komunitateak), inbertsioak abian jartzeko jarduerak

Erakunde eskatzailearen artezkaritzan kontseiluan edo zuzendaritza batzordean %40 emakumeak izatea (5 puntu)

Egoera hau ziurtatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da.

B PROGRAMA (enpresen energia-komunitateak)

Berdintasun-plan bat erregistratuta duten eta horretara behartuta ez dauden edo, behartuta egonik, berdintasunaren arloko enpresa-ziurtagiri edo –bereizgarri bat duten edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa duten enpresa kopurua (puntu 1 baldintza horietako bat betetzen duen kide bakoitzeko, gehienez 5 puntu)

Kopuru hau ziurtatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da.

OHARRA: Dirulaguntzaren xede den jardueran aurreko kontsiderazioak sartu izana IV.B formularioaren bidez egiaztatu beharko da jardueraren azken justifikazioan. Egiaztatzen ez bada, jarduketak lortutako puntu kopurua murriztuko da, 7. oinarrian zehaztutako balorazio-irizpideak eta, hala badagokio, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aplikatuz. Era berean, diruz lagundu daitekeen jarduketan lortutako puntu kopurua gutxitzeak eskabideen ondoriozko lehentasun-hurrenkera aldatzea badakar, eta dirulaguntza emateko ebazpenean aurrekontua agortu bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu ahal izango da, gutxieneko puntuazioa lortu arren, aurrekontu-mugarik izan ez balute zegokien zenbatekoa lortzerik izan ez zutenen alde.